

SARRERA-ENTRADA  
**LASARTE-ORIAKO UDALA**  
2014 MAR. 07  
AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA  
N.º 1673 Zkia.

## KONTRATU PUBLIKOETAN, KLAUSULA SOZIALAK

Honako idazkia bina bere tramitazio  
Sailera  
Para el presente escrito al Negociado de  
*Secretaría*  
*Alcalde* para su trámite  
2014 MAR. 07  
LASARTE-ORIA  
IDAZKARI OROKORRAK

Azken urteetan, euskal herriak pairatzen duen krisi ekonomikoak agerian utzi du euskal herritarrek pairatzen duten egoera. Hainbat eta hainbat egoera baztertzailer eguneroko bihurtu dira. Azken datuen arabera, Hego Euskal Herrian 219.071 langabetu dago, lan egiteko adinean dagoenaren %16,5a hain zuzen ere. Egoera larri hau aldatzeko ezinbestekoa dugu bertoko instituzioen inplikazioa.

Ba dira hainbat tresna, instituzio publikoen eskuetan, egoera honi buelta emateko erabili daitezkeenak. Modu justuago batean jardunaz, aukera berriak ireki daitezkeenak. Horietako bat, Kontratazio Publikoa dugu. Desoreka hauek murrizteko baliagarriak izan daitezke Kontratazio Publikoak. Erakunde publikoak, eta herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak izanik Udalak, benetako ahalegin bat egitera behartuta daude. Eredu guztietatik lan eginaz, jendartean dauden desberdintasunak eta desorekak apurtzea lortu dezagun.

Azken urte luzeetan zehar, Kontratazio eta erosketa publikoa egiterako garaian, kriterio ekonomikoak erabili dira soilik oinarri gisa. Eskaintzen ziren zerbitzuen kostua izan delarik erreferentzia bakarra bide hori jorratzerako garaian. Hau aldatu beharra dago.

Kontratu Publikoak arautzen dituen legeriaren barnean, bai Europar Komisioak, zein EAEn indarrean dagoen legeriak eta baita Nafarroako Legeak ere, bestelako kontratazio publiko bat egiteko aukera ematen du.

Adibidez, 2008ko ekainean argitaratutako "Autonomia erkidegoko administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzko akordioak" aukerak ematen ditu bestelako kontratazioak burutzeko.

Udal instituzioetatik bestelako politika bat aurrera eramatea ezinbestekoa da. Krisialdi ekonomikoari orain arteko eskema askorekin apurtuz soilik egingo diogulako aurre. Kontratu Publikoak eta erosketa publiko justuak egitearen bidea jorratu behar dugu. Udal langileen lan baldintzak bermatzeaz gain, eremu bakoitzeko lan hitzarmenen errespetua, lan segurtasuna bermatzea, ingurumenaren babesa, euskararen presentzia bermatzea, berdintasun irizpideak, ezgaitasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsonen presentzia bermatzea... eremu oso zabala dugu garatzeko.

Erakunde Publikoek, Kontratu eta erosketa publikoaren alorrean urratsak emateko garaia da. Euskal Herriko instituzioek, orohar langile, emakume, ezgaitasunak dituzten pertsona, ingurumen eta hizkuntza eskubideak bermatzeko garaia iritsi da.

Hau guztia kontutan hartuta, Bildu udal taldeak ondoko mozio hau aurkeztzen du, osoko batzarrean eztabaidatu eta udalak bere egin dezan:

1. Udal honek, hemendik aurrerako kontratu eta erosketa publiko guztietan, indarrean dagoen legediak ematen dituen aukerak baliatuz, "klausula sozialak" txertatu eta aplikatzea onartzen du.
2. Udal honek, aipatutako klausula horien lanketa, garapen eta jarraipenerako konpromisoa hartzen du, beharrezko balitz, helburu hori duen lantalde bat sortuz edo dagokion batzodera bideratuaz.

Lasarte-Oriako Bildu Udal taldea

Lasarte-Orian, 2014ko martxoan